

ANOETA ▶

Zizurkil, 2. herri kiroletan

Xibak antolatutako
topaketa izan zen ▶ 4



Helsinki merkat guneak ezagutzen izan dira Tolosako ordezkariak

IREKIAK ▶ Gune irekiak herrirako
«baliagarriak» iruditzen zaizkio
Gomez Elozegi zinegotziari

DENDAK ▶ Tolosako merkataritza
«berrindartu» behar dela dio udal
ordezkariak ▶ 2



J.M. Gomez Elozegi. HITZA




Festa egun ederra Pake Toki elkartearen 25 urteak ospatzeko

ARESO ▶ Eguraldia lagun, Pake Toki elkartearen 25. urtemuga
ederki ospatu zuten igandean herritarrek. Jende dezente bildu
zen hamaiketakoan —argazkian— eta ondorengo pilota partidue-
tan. Bazkarian 110 bazkaldar elkartu ziren. JAIONE ASTIBIA ▶ 7

AMEZKETA ▶

Ikasleek mendian pasatu dute asteburua

Buruntzunzingo
aterpean izan dira ▶ 5



Buruntzunzingo aterpea. HITZA

"... ez utzi biharko;
etor zaitez gaur
Estetikako Zentru
Integral berria
ezagutzera..."



Estetikako Zentru Integrala

Maite

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

Irakurketa egaitzaz
emaitzak nabari dira

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Reme, beste Mengele bat

Remedios izena du Alcalá-Meco espetxeko egungo Medikuen zuzendariordeak. Hura da goreneko autoritatea osasun arloan kartzela honetan. Reme, beti izkintxo egiten dabilen emakumea. Ez du sekula aurpegi ematen, eta itzalean aritzen da beti. Esaten dutenez, badu zer bait Antoniarekin, hots, Manolo Peraltaren amarekin. Manolo Peralta mandataria da (Eri-zaindegi honetako astolangleak).

Manolo da astolangleetan astolangleena Remek ezarritako pertsona departamendu hau zaintzeko. Remeren konfiantzako gizona da. Droga trafikante bat, Alcalá de Henaresko koka eta heroina banatzaile handienetako baten semea. Andre hori jardunean dago oraindik, baita semea ere meritu orriak pilatuz lortzen dituen baimenetan; izan ere, «jarrera ona» aitortzen diote, eta «gizarteratzeko guztiz prest» dagoela esaten dute, eta beste hainbat kopia. Alaja ederra, Antoniaren semea. Peraltaren on-

doan, Lucas skina. Lucas, istorio honetako tonto baliagarria, zinemarako moduko pertsonaia bat da. Ezagutuko ez banu, tankera horretakoak filmetan bakarrik daudela pentsatuko nuke. Auzoetako harroputzen prototipoa da, txikia neurritz horregatik ibiliko da agian hanka-puntetan baina are txikiagoa buruz. Entzefalograma laua duena, eta normal hitz egiten ez dakien pertsona: garrasi eta orroa besterik ez du egiten... Bere harropuzkeria patologikoari esker kontsolatzen den konplexuz jositako bat. Gimnasioko gizona dugu edo gimnasiorako bizi dena?; lotsagarria da, benetan, zenbateraino gustatzen zaion bere gihartxoak nabarmentzea: jana burruntzaliarekin zerbitzatzen duenean ere 90 gradu okertzen du besoa. Lucas buru-laua harro dago bere xenofobiaz. Curriculuma ere aintzat hartzekoa du; beltz bat hil zuen eta beste bat larri zauritu zergatik, eta beltzak izateagatik. Ultrasur amorratu horrek berdin gorrotatzen ditu beltzak, arabiarak, gay jendea, ijitoak eta euskaldunak, eta eraso egi-

ten die mingainez edo indarrez ahal duen bakoitzean; izan ere, ederkidaki baduela bizkarra nork zaindua, larrialdiren batean etorriko direla espetxezainak berari babak elitzetik ateratzera, behin edo behin gertatu den bezala. Harro dago oso sorbaldan tatuatu dituen SS letrez, eta itzalean bakarrik ibiltzen da, ez baitu nahi bere azal zuria beltzerik. Halaxe da, halaxe denez, Gizaseme hori da Pepe Rei astindu zutenetako bat kartzela honetan izan zenean Revuelta izeneko beste batekin batera, Remeren beste zerbitzaria erietxe honetan. Tontoa inondik ere, baina tonto arriskutsua.

Aipatu ditudan hiruren artean, eta Zuzendaritzaren oniritziarekin, erabakitzen dute erizaindegiko horma hauen barruan nola biziko garen zer bait esatearren. Senda-agiria nori eman eta nori ez erabakitzen dute. Lehentasuna ematen diete beti araudi kontuei, osasun eta garbitasun kontuak bigarren mailan utzirik. Adibide bat jartzearen: martxoaren 11n lekuz aldatu zuten preso sozial solidario bat «eragin txarren mende» ze-

goelako, eta gainerakoak mehatxatu egin zituzten modura bidualtzearekin edo Egiptoko zazpi izurriteekin, euskaraz hitz egiten segitzen bazuten.

Horrez gain, euren artean hitz egiten eta erabakitzen dute Tratamendu Batzordeak egin aurretik, euskaldunak ez dezala amets egin, ez baita kalera irtengo. Ez ditate janaririk zerbitzatzen neronekin egin dezadan; azkenputz uzten naute astolangleak hala nahi duen bakoitzean, gisa horretan ni apalarazi nahian. Jarrera aldatzen dute, ordea, lortzen duten bakarra niri mesede egitea dela konturatu orduko; izan ere, Sagrario emaginarekin semearentzat, desohorea baino gehiago, ohore handia da skin batekin janaria ez zerbitzatzea.

Reme bera da, kartzelazainen batekin batera, mandataria zirikatzeko, bultzatzen (edo gidatzen?) dituen M-11n «euskaldunari jipoia emateko». Baina gero, badaezpada, preso sozial guztiak zirikatzeko dituzte, eta haiek, klandestinitatean bezala, derriortuak sentitzen dira inoiz baino babes-tuago sentiaraziko nauen elkarta-

sunak eskaintza. Horiek dira satelariak, ipurdi-miaztaileak, kartzelazainen kontakatiluak. Horiek egiten dituzte lanik zikinenak, astinduak ematea barne. Dena saltzen dute egun batzuetarako baimena lortzeko, baldintzapean behar baino lehenago aske ateratzeko edo droga tratuan egiten uzteko. Parean, berriz, gu gaude, presoak, letra larritz idatzita. Oso gaixo gauden presoak, preso eroak edo azkenetan gaudenak. Atzo, bere buruzak beste egun zuten batekin. Egunen batean elkarrekin topo egiteko hitzordua jarria genuen, beste egoera batean jakina, inolako Remerik ez dagoen lekuan, ez Alcalá eta ez Iraken, Auschwitz eta Mengele amesgaizoto bat besterik izango ez diren lekuren batean.

P.D.: Idazki hau amaitu eta gero, Daniel Vilches Fernandez presoak hil egin dela jakin dugu. Daniel duela egun gutxi kartzelatik atera zuten, espetxean hildakoen zerrendak ez gizontzearen.

MANU AZKARATE (PRESO

POLITIKOA) ▶ ALCALÁ

* Erredakzioan itzulia

EKONOMIA ▶

JOXEMI SAIZAR

Gipuzkoako Merkatal Ganbararen ekimenez, hainbat komunitetako ordezkariak —tartean Tolosako Udaleko ordezkaria eta dendari batzuk— Helsinki (Finlandia) izan berri dira hango merkataritza ezagutzen. Joandakoen artean gipuzkoarrak ziren nagusi, baina Kantabria eta Burgosek ordezkari batzuk ere izan dira. Gipuzkoarren artean Donostia, Eibar eta Errenterikoak izan dira. Tolosako Udaletik Jose Miguel Gomez Elozegi Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo zinegotzia eta Iñaki eta Blanca Gorrotxategi dendariak ere bai.

«Merkatal gune handiak ikusi ditugu, batzuk itxiak eta beste batzuk irekiak. Azken hauen esperientzia Tolosarako baliagarria izan daiteke», adierazi dio HITZARI Gomez Elozegik. Helsinki merkatal gune irekiak 10-12 kaleko 150 bat dena eta dozena bat almen biltzen ditu. Marketinaz eta sustapenaz arduratzen den kudeatzaile bat eta batzorde bat du guneak. «Superficie handiak ere badituzte gertu,

Helsinki merkatal guneak ezagutzen izan da zinegotzi bat

Zentro irekien esperientzia Tolosarentzat «oso baliagarria» iruditu zaio eta merkataritza «berrindartu» behar dela dio



Jose Miguel Gomez Elozegi eta Gorrotxategi anaia-arrebak Helsinki hango udal ordezkariekin. HITZA

baina konpetentzia ez direla diote zentro hauen arduradunek. Produktu eta zerbitzu onak eskaintzea dira bere abantailak. Eroslearengandik gertuago egotean dago kaka», dio zinegotziak. Finlandiako klima kontuan hartuz —neguan -30°C iristen dira— merkatalgune itxietan garraio publikoa berriratu iristen da eta oso maiz. «Ja ez dugu autotxik ikusi hirigunean», dio.

Helsinki Udaleko ordezkariak egoteko aukera ere izan zuten delegazioak. «Hango Udalak ez dizkie diru laguntzak ematen dendariei, baina azpiegitura eta komunikazio aldetik laguntza handia ematen die», dio Gomez Elozegik.

Han ezagututakoarekin batera, Kantabria eta Burgosek joandako ordezkariak egin dako harremanak «oso interesgarriak» izan direla erantsen du.

Bidai honetatik ikasgai probetxugarriak ateratzea espero du udal ordezkariak. «Tolosako merkataritza berrindartu behar da lehenbailehen. Herri osoa merkatal gune ireki handia izan daiteke», esan dio zinegotziak HITZARI.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko



Leo Esteban Nietoren errautsak Larraitzen

PRESOAK ▶ Azken agurra eman diote asteburuan Leo Esteban Nietori. Ostegun iluntzean hil zen, eta haren errautsak barreiatu zituzten herenegun eguerdian, Larraitzen. «Sakabanaketa politikoak» hil duela salatu dute senideek eta Etxerat taldeak. HITZA



Informazio bilera, Manu Etxera-k deituta

PRESOAK ▶ Manu Etxera plataformak deituta, informazio bilera egin zuten herenegun iluntzean Trianguloan. Manu Azkarate egoerari buruzko informazioa helarazteaz gain, salaketa ere egin zuten bertan. Gaur 20:00etan, batzar zabala egingo dute, Kultur Etxean. HITZA

BONBERENEA ▶

Kontzertuei gero arte, kirolari ongi etorri

Denboraldiko azken emanaldiak hartu ditu etxeak asteburuan

LEIRE MONTES

Kontzertuetako denboraldiari agur esan diote asteburu honetan Bonberenean. Musika-ren inguruan lanean jarraituko dute arren —grabazioak estudioan, datorren denboraldiko kontzertuen antolaketa...—, larunbatean hartu zituen etxeak denboraldiko azken bi kontzertuak: entzulego asko erakarri zuten Akauzazte eta Atom Rhumba taldeen emanaldiak. Urrian itzuliko dira berriro kontzertuak —baita zine-klubeko saioak ere—. Eta, bitartean, kirolari lekua egin nahi diote etxean.

Rokodromoa eraiki nahian

Etxean rokodromoa eraikitzea erabaki berri dute Bonbereneakoek, eta urrira bitarte asmo hori gauzatzeko lanean ariko dira.



Akauzazte —goian— eta Atom Rhumba, Bonberenean. BONBERENEA

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

IRURA ▶ GIZARTEA

Goiza pasa Irurako Udalarekin

Udaleku irekiak antolatu dituzte; izena emateko epea 14 arte dago irekita

GARAZI AZKUE

Irurako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu haurrentzat opor garairako. Duela sei urte izan zen lehenengo saioa eta aurtur ere izango dira ekintzak herrian gaztetxoentzat.

Udaleku irekiak edo Goiza pasa, ekainaren 28an hasiko da aurtur, eta, uztailearen 30a arte izango dituzte jolasak eta irteerak herritarrek. Bi urte eta hamasei urte bitarteko gazte eta haurrek hartu dezakete parte Goiza pasan; hau da, Haur Hezkuntza, LH eta DBHko ikasleek.

Goizetan izango dira ekin-tzak, 10:00etatik 13:00ak bitartean, astelehenetik ostiralera. Hilabete guztian joan ezin dutenentzat bi txanda antolatu ditu Udalak, lehenengoa ekainaren 28tik uztailearen 14a bitarte, eta bigarrena, uztailearen 15etik 30era bitarte. Hilabete osoan egongo diren haurrek 60 euro ordaindu beharko dituzte, eta txanda bakarrean

egoten direnek 30 euro. Bi edo hiru senidek izena emanez gero beherapena izango dute.

Goiza pasan izena emateko orria udaletxean edo liburategian jaso daiteke. 21010227-010000089540 konturan sartu beharko da dirua, ekainaren 14a baino lehen.

Bestalde, Goiza pasan begirale moduan lan egiteko izena emateko epea irekita dago ekainaren 14a arte. Begiraleak aukeratzeko garaian ondorengo baldintzak betetzen dituztenek izango dute lehentasuna: Irurakoa izatea, adin nagusikoa izatea, aisialdiko begirale titulua izatea eta kirolerako, eskulanerako eta haur eta gaztetxoak zaintzeko dohainak izatea. Horretaz gain, eskaraz jakitea ezinbestekoa da izena emateko. Aukeratutako begiraleak ekainaren 21ean hasiko dira lanean, egunean hiru orduz.

Izena emateko udaletxeko kultura bulegora edo liburategira joan beharko da.

VILLABONA ▶

Bailarako pultsulariak onenen arteana daude

Taldekakoan eta federazioetan bigarren postua izan zuen Gipuzkoak

G. AZKUE

Pasa zen asteburuan izan zuten Danena-Olaederra bailarako halterofilia taldeak norgehiagoka.

Euskadiko taldekako, banakako eta federazioen arteko txapelketa izan zuten Gasteizen.

Banakako sailkapenean Jon Lopezek bigarren postua lortu zuen 56 kilo bitartekoetan. Ekaitz Kortajarena ere bigarren lekuan gelditu zen 62 kilo artekoetan. Lehenengo postua Francisco Gonzalezek lortu zuen 69 kilo artekoetan. Patxi Hernandez hirugarren lekuan gelditu zen. Teddy Martinezek eta Gorka Lopezek ere bigarren lekua izan zuten.

Taldekako sailkapenean Gipuzkoa bigarren postuan gelditu zen Bizkaiaaren atzetik. Federazioen arteko sailkapenean ere postu bera lortu zuten Danena-Olaederra taldeko pultsulariak.

IRURA ▶ GIZARTEA

Jubilatuentzat irteera izango da hilaren 17an

Gaur izango da izena eman ahal izateko eguna, 16:30ean jubilatuen elkarte

G. AZKUE

Irurako jubilatuek egunpasa antolatu dute hilaren 17rako.

Logroñora joango dira guztiak. Bazkaria Ventavillasen izango da eta etxerako bueltan Gasteizen egingo dute geldialdia.


Izena emateko gaur jarri dute hitzordua. Joateko asmoa dutenek Jubilatuen elkartera inguratu beharko dute, gaur, 16:30etik aurrera.

Informazio gehiago jaso nahi duenak jubilatuen elkartera gerturatu beharko du gaur arratsaldean.



Festetan, Xibaren topaketa

ANOETA ▶ Xibak antolatutako Euskal Herriko Herri Kirolen I. Topaketa izan zen igandean, Anoetako jaietan. Tolosaldeko talde bakarra zen bertan parte hartzen, Zizurkilgo taldea. Zizurkildarrek bigarren postua lortu zuen saioan, Idiazabalaren atzetik gelditu ziren. Beraz, finalerako txartela lortu zuten kirolariak. Euskal Herriko finala, sailkatutako taldeekin, Tolosako zezen plazan izango da. HITZA



10 bidaia zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:



Euskaldunok behar dugun **berria**

GUTUN@K ▶



Apaiz jaunari eskutitza

Franconi Haur Eskola zabaltearen aldeko guraso taldea gara eta Franconin Haur Eskola zabalteko dauden oztopoak zure jarrerak eta erabakiak eragindakoak direnez eta horrek erabat kaltetu gaituenez, zuregana zuzentzen gara honako hau adierazteko asmoz:

Zu eta zuk ordezkatzun duzun erakundea edota pertsonak ez zarete inolaz ere Franconiren jabeak eta horregatik ez dugu inondik inora onartzen zuek emandako erantzuna, herri honen interes orokorren erabat kontrakoa baita.

Halaber, zuk emandako argudioak onartezinak direla deritzogu. Haur Eskola Franconin zabaltea Fundazioaren estatutu eta helburuekin bat ez datorrela esatea adarra jotzea dela iruditzen zaigu. Jakinda, dakigun bezalaxe, benetan estatutu eta helburuekin bat ez datorrena oraingo egoera eta erabilera direla.

Noizean behin ziztatzea edota asteburuetan ping-pong-jokatzea bat al datoz Fundazioaren helburu hezitzaileekin?

Eta astean zehar erabat desaprobatxatuta egotea eta herriak behar izanda erabili ezin izatea?

Horrek guztiak zer pentsa ematen digu. Interes arbitrario eta partikular batzuk herriaren interesen aurretik jarri dituzula pentsatzen dugu. Gainera, zuk ordezkatzun duzun erakundea bere interesei aurre egiteko ez al ditu nahikoa baliabide herrian (erretoretxea, eliza, Elizpe zinema, zentroa)? Ezin al zaie batez ere zinema eta zentroari erabilpen egoki bat eman? Zertarako behar dituzue edota dituzue hainbeste eta halako toki onak?

Zure erabaki onak izan diren aurretik Haur Eskolan izena eman duten hamasei umeak beste herri batzuetara eramatera behartzen gaitu, hau da, bere herritik atera, errepidean

jartzera... horrek suposatzen duen arriskuekin. Nor litzateke erantzule zerbait gertatuz gero?

Egoera honetaz baliatu zara egia osoa esan gabe:

-Noiztik zara Altzoko parrokoa? Zer eragin izan du horrek Fundazioan Haur Eskolari buruzko hainbat erabaki hartze-ko garaian?

-Zergatik eman zenuen Haur Eskola sortzeko batzordea osatzeko hitza, errealitatean inongo asmorik izan ez duzue?

Jakin ezazu engainatuta sentitzen garela eta zure jokiera ez datorrela bat zuk dituzun (ustezko) printzipio eta baloreekin.

Ez da egia Haur Eskola Franconin jartzeak mojen irteera suposatuko lukeenik, jakinda gure asmoa beti izan dela jarduera ezberdinak uztartzea (Haur Eskola, mojak eta aste bukaerako aktibitateak).

Nork zabaldu ditu herrian horrelako zurrumurrutik maltzurak? Zein erabiltzen ari da gezurra bere helburuak lortzeko?

Franconin Haur Eskola zabalteak, onura baino ez lioke ekarriko herriari: lanpostuak, gure umeak herrian geratzea, beste herri batzuetatik hona ekartzea...

Saiatuko gara ahal diren bide guztietatik eta ahal diren baliabide guztiak erabiliz Alegiako Haur Eskola Franconin izeneko tokian zabal dadin, egokiena iruditzen zaigulako eta erabaki *kazikistak* onartzen ez ditugulako.

Laburbilduz, Franconi herri osoarena dela esan nahi dizugu eta herriak ere behar duela erabat desaprobatxatuta dagoelako eta ez dugula etsiko gure asmoa bete arte.

Eta bitartean kalteturik sentitzen garenez, zure azalpenen zain gelditzen gara bai gurasoko eta bai bere laguntza eman diguten guztiak.

Erabakia aldatuko duzula-koan...

HAUR ESKOLA ZABALTEAREN
ALDEKO GURASO TALDEA ▶ ALEGIA

AMEZKETA ▶ INGURUMENA

Buruntzunzen asteburu pasa

Buruntzunzingo Mendi Elkarteko kideekin batera pasatu dute asteburu Zumadi eskolako bederatzi ikaslek



Buruntzunzingo aterpean asteburu pasatu duen taldea, aterpearen aurrean. J.M.GARAIALDE



Zumadi eskolako gazteak aterpearen aurrean egon berri duten txabola txikiaren aurrean. J.M.GARAIALDE

OLAIA ESKITXABEL

Amezketatik gora, garai batean minak zeuden tokian dagoen mendiko aterpea da Buruntzunzen; elkarre bat bezala funtzionatzen du aterpeak. 70 bazkide daude eta aurrean, lehenengoz, elkarreko zuzendaritza batzordeak Zumadi eskolako gazteak gonbidatu ditu bertara asteburu pasatzera. Seigarren mailako bederatzi ikaslek asteburu pasa dute bertan.

Larunbata arratsaldean abiatu eta igandera bitartean ingurua ezagutzeko aukera izan zuten. Anastasio artzainaren eskutik ardiak jeitzeko eta gazta egiteko pausoak ezagutu zituzten; haurrek ezezik irteeran parte hartu zuten elkarteko kideak ere gustura entzun zituzten artzainaren kontuak. Horrela joan zen eguna.

Aspaldiko minetako zulo bat bisitatu zuten herenegun; ondoren, errekatxoan freskatu

eta etxerako bidean jarri ziren. Elkarteko kideek azaldu dute, «gaztekoentzat zein elkarteko kideentzat aberasgarria izan da asteburu». Hurrengo urtean «proposamen bera eragoz dugu», azaldu dute.

Berrikuntzak, auzolanean

Azken hilabeteetan auzolana eginez, hainbat konponketa

egin dituzte Buruntzunzingo aterpean; aterpearen ondoan txabolatxo txiki bat egokitu dute, esaterako: «Mendian doan edonorentzat irekita egongo da beti», azaldu dute.

Mahai bat, aulkia eta arropak zintzilikatzeko jarri dituzte bertan; iturria ere bertan dago. Berezik azipimarratu dutena zera izan da: «Erabiltzen dutenek gauzak ondo zain- tzea».



**INMACULADA IKASTETXEA
TOLOSA**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Radiodiagnostikoa
- Osasun Dokumentazioa
- Gizarte Integrazioa

AURREMATRIKULA-EKAINA-Tfno: 943 67 36 29

Beti gure herriko kultura laguntzen.....

Tolosa Gasak ehun bezero gonbidatu nahi ditu **Ainhoa Artetaren** emanaldira. Gure bezeroen artean zozketa egin dugu eta laister jasoko dituzue etxean erabat dohainik bi sarrera. Adi egon, ekainaren 16an, gaueko 20:00etan hitzordua baitaukagu Leidor aretoan.



Tolosa Gasa.....naturala da.

Bezero Arreta Bulegoa • Arostegieta, 18 behe • Tel.: 943 67 35 20

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behe • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ PINTURA

Artisten ilusioz, margotzea afizio

Pintura tallerrean aritutako ikasleen pintura erakusketa
dago ikusgai Benito Izagirre kultur etxean



Kultur Etxeko pintura tallerrean aritzen diren ikasleetako batzuk, margolari lanetan. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

A maitzeaz da Kultur Etxeko pintura tailerra. Hori dela eta, aurtengo ikastaroan Jose Luis Longaron irakaslearen esanetara egon diren hamaika ikasleek ikasturtean zehar eginiko lanen erakusketa osatu dute.

Pintura teknika desberdinak landu dituzte: esaterako, oleoa, *collage*-a, argizari-pintura, akuarela eta abar. Teknikari dagokionez, ikasle bakoitzak gustukoaren izan duen estiloari ekin dio; besteak beste, *naif*, abstraktu eta klasiko estiloko lanak topatu daitezke ikasleek erakusgai jarri dituzten gai anitzetako koadroetan. Hala ere, oleo estiloa gailentzen da besteen gainetik.

Erakusketa ekainaren 13a

bitarte izango da ikusgai Benito Izagirre kultur etxean. Pintura ikastaroan aritu direnak jendea beren lanak ezagutzera animatu nahi izateaz gain, datorren ikasturteari begira tailerrean izena emateko direnei, erakusketa bisitatzeko gonbite berezia luzatu nahi diete.

Astean bi egunetan elkar-tzen dira irakaslearekin batera Pepi, Felix, Maribi, Izaskun, Briji, Maria, Jesus, Axun, Piedad eta Jaione. Jose Luis Longaron irakaslearekin «oso gustura» daudela adierazi dute ikasleek eta eskoletan izaten den «giro bikaina» azpimarratu dute. Koloreen nahasketa, pintzeladen trazuak... makina bat gauza ikasi dituzte irakaslearen laguntzaz. Longaronen hitzetan, «bakoitzak barruan duena, norberaren barruan dagoena

esnatzen» saiatzen da eskola orduetan.

Ofizioa ez, baina denek oso gustuko afizioa dute margotzea. Argazki edo irudi bat hartzen dute erreferentzia gisa, eta handik koadro dotoreak egiten dituzte; bakoitzak, betiere, bere ukitu pertsonala ematen dio. Ikasleen aburuz, «koadroak egitea zaila iruditu arren, erraza egiten da, are gehiago giro ona nagusi bada». Ahal duenak, Kultur Etxetik kanpo ere jarduteko ohitura du.

Gela «txikia» dutela da «arazo bakarra. Askotan elkarri traba egiten egoten gara, toki gutxi dugulako».

Batzuentzat lehenengo ikasturtea izan da aurtengoa, besteek esperientzia handiagoa dute. Edonola ere, inorentzat ez da azkenekoa izango.



Omenaldi hunkigarria Inari

LIZARTZA ▶ Hunkigarria izan zen herenegun Ina Zeberio lizartzarri herriarrek egin zioten omenaldia, haren heriotzaren seigarren urteurrenean. Ertzaintzak tiroz hil zuen Gernikan Zeberio. Axurdario mendian ekitaldia egin zioten, eta eguerdian omenaldia haren omenez dagoen monolitoaren aurrean. Askok loreak ipini zituzten bertan. Txalapartariak, dantzariak, bertsolariak, Arnaldo Otegiaren hitzaldia... izan ziren. HITZA



Uzturperen jai handia

IBARRA ▶ Giro aparta izan zen igandean Uzturpeko Ikastolaren Egunean. Ekitaldi ugari izan ziren egunean zehar; ikasle eta gurasoek ez ezik, herriar ugari parte hartu zuen. Goizean jolasak, pilota eta toka izan zen. Eguerdian, bazkaria Belabietako kiroldegian, eta bazkalostean, musika eskolako saioa, Alurr-eko dantzariak, aerobik-a, gimnasia erritmikoa eta hockey partidua. DANI GIBELALDE

IRAGARKI LABURRAK ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Erremetari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Erremetari kalean, bi logelako apartamentua salgai. Oso egoera onean dago. 159.268 euro.

Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108

m2. Pisu ederra salgai. Aukera handiak.

Tolosa. Lurrarmendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 450.739 eurotik aurrera.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 euroatik aurrera.

Ibarra. 86 m2. Pisu ederra eta altua

salgai igogailuarekin hornituta. 222.374 euro.

Iruia. Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

Iruia. Bi logelako pisu polita. Gazteentzako aproposa. 158.066 euro.

Billabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 euroatik aurrera.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Beasain. Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

Legorreta. 88 m2. Ikusmen ederreko etxebizitza. Oso eguzkitsua. 153.258 euro.

Baserriak. Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

Pabilioiak. Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

Borda. Salgai Urnietan.

Aikizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

ARESO ► PAKE TOKIKO XXV. URTEURRENA



Batzuk pilotan ari ziren bitartean... JAIONE ASTIBIA



... besteak hamaiketako egiten eta jolasean. J. ASTIBIA

Festa giro ederra Pake Toki elkartearen urteurrenean

Herritarrek aitzakia dotorea bilatu zuten elkarrekin egoteko, eguraldi eguzkitsua lagun

JAIONE ASTIBIA

Pake Toki elkarteak sortu zela 25 urte bete dira aurten eta hori ospatzeko festa-eguna

izan zen igandean egun beteko egitarauarekin.

Jende dezente hurbildu zen herriko plaza ingurura, kanpoko beroari, salda eta pintxoare-

kin, tragoska bat eginez peatza. HITZARI adierazi ziotenez, besteak beste elkarrearen sorreran lanean aritu izan ziren bazkide sortzaileen senitate-

koek ere ez zuten festan parte hartzeko aukerarik galdu. Hamaiketakoarekin batera herriko mutil gazteak pilota partiduak jokatu zituzten, bi partidu zehazki, eta zuten guztia eman zuten herritarren aurrean. Festa bukatzeko, herri bazkaria burutu zuten elkartean bertan. 110 bazkaldar bildu ziren mahai inguruan, bazkideak eta hala ez zirenak, goiz guztian zehar sukaldariak prestatu zituzten jakiak dastatzera.

Bazkalondoa Irurritako soinu joleek alaitu zuten eta bertara bildu zirenek abestu eta dantzatzeko aukerarik ere ez zuten falta izan, ohiko giro ederrean. Hainbeste denbora itxaron baino lehen, antolatuko omen dituzte berriz ere festa egunak.

MUSIKA ►

Konzertu bikaina eskaini zuten musika eskolako ikasleek iragan ostiralean

Hirurogei ikasle inguruk parte hartu zuten eta doinuak jo ez ezik, abestu ere egin zuten

J. ASTIBIA

Ostiral iluntzean ikusizun bikaina eskaini zuten Aralar Musika Eskolako ikasleek jendetzak zegoen Leitzako zinema aretoan. Aipatzekoa da emanaldia baino lehenago, herriko kaleetan barrena ere ibili zela zeharkako xirula, saxofoi eta perkusioz osatutako talde bat, kontzertuaren iragarpena eginez.

Kontzertua bera berriz osoa, anitza eta erakusketak aberatsa izan zen. Bertan musika eskolako 60 ikasleek parte hartu zuten, Leitz, Areso eta Beteluko-

ak denak, eta zenbait doinutan irakasleek ere jo zuten

Esan behar da egitarau oparoa eskaini zutela, estilo guztietako doinuak jo baitzituzten, gustu guztiak asetzeko moduan: bakarka nahiz taldeka, euskal doinuak nahiz atzerrikoak, soinuak bakarrik, nahiz abestuta ere. Ezaugarri garrantzitsua izan zen, gehien bat, inolako partiturarik gabe aritu zirela lanean, irakasleen esanetan «memoria lantzeko eta, buruz ikasita zituzten. Jendarean, paperari baino, jendeari eta taldeari adi egoten ikasi behar da».



Konzertuko talderik jendetsuena lanean. J. ASTIBIA

Bestalde, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zikloez gain, goi zikloa ere amaitu duten ikasleei diploma bana ere banatu zitzaion: Ander Perurena, Eguzkiñe Zabaleta, Maitane Billabona, Eneritz Zabaleta, Mikel Olazabal eta Irati Barandiaranek bukatu dute «hizkuntza musikaren zikloa eta hemen-

dik aurrera beraiek hala nahibadute, instrumentuekin jarraitu dezakete».

Orohar oso gustura gelditu ziren ikasle eta irakasleak «ikasleek maila oso ona erakutsi dute. Nabari da urtetik urtera hobetzen ari direla eta lana egiteak merezi duela. Dena ongi aterata da».

TELEFONOAK ►

LARRIALDIAK

► 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

► Anbulatorioa, larrialdia: 461111

► San Esteban: 00 68 00

► Gernikako arbola: 00 69 00

► Amaroeko dispen.: 67 26 37

► Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

► Udaltzaingoa: 67 58 58

► DYA: 67 25 36

► Gurutze Gorria: 67 48 88

► Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

► Renfe Tolosa: 65 28 89

KOMUNIKABIDEAK

► Galtzaundi: 65 50 04

► Aiurri aldikaria: 30 07 32

► Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

► Aitzol (Tolosa): 65 10 06

► Arramele-AEK: 67 12 14

► Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Azpiroz, Amaro, 9,

(Tolosa). 943 67 51 18.

Plaza M., Elbarren, 36, (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aizt@tolosaldeko-
hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ►

CASTING-A

Antzezlea. Antzerki lan batean antzezteko mutil euskalduna behar dugu. Gutxienez 1,75 m. Ostirala 11n, 15:00etan, San Esteban auzoa 31, 7. pabiloian. Tolosa.

